

@@@EDIKTUA, Gizarte Gaietako sailburuordearena, ondoren aipatzen den espedienteari buruzkoa.@@@

Fernando Fantova Azcoaga jaunak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuordeak, ediktu hau eman du:

EDIKTUA

Birritan saiatu arren, ezinezkoa izan da XXXXXXXXXXXX andreari frogaldia irekiko zaiola jakinaraztea 30/2010 zenbakiko gora jotzeko errekurtsioan ageri den helbidean. Hori horrela, ediktu hau argitaratzen da EHAAren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikulua eta aplikatu beharreko gainerako xedapen konkordanteak betetzeko. Era berean, interesdunari ohartarazten zaio ezen aipatutako errekurtsioan hilabeteko epea irekiko dela, honako agiri hauek aurkezteko:

- XXXXXXXXXXXXXXX-en PFEZren aitorenaren likidazioaren fotokopia, Administrazio eskudunak egindakoa (2008ko ekitaldia).

- Salbuetsita egoteagatik PFEZren aitorena egin ez badu, salbuespen-zurtagiria aurkeztu beharko du.

- 2008. urtean beste herrialde batean bizi izan bada, jatorrizko herrialdeko agiri ofizialak, non egiaztatzen baitira urte horretan izan zituen diru-sarrerak.

Errekurtsioan alegatutakoa frogatu ahal izateko, eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko ditu, frogaldi horretan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Sailburuordetzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 25a.

Gizarte Gaietako sailburuordea,
FERNANDO FANTOVA AZCOAGA.